Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko ekainaren 26a, astelehena — 122 — Lunes, a 26 de junio de 2023

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*2023-2025. aldirako Gipuzkoako kirol ekipamenduen planeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak, 2023ko ekainaren 13an egindako batzarraldian, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

Euskadiko jarduera fisiko eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 4.c) artikuluak xedatzen duenez, lurralde historikoetako foru organoei dagokie kirolerako eta jarduera fisikorako ekipamenduen lurralde-plan sektorialak onartzea.

Jarduera fisikoak eta kirolak interes handia pizten dute Gipuzkoan, eta oso zabalduak daude gure artean; izan ere, halako garapen maila dute gure lurraldean, non Gipuzkoaren identitatearen ezaugarri bilakatu diren. Zalantzarik gabe, herri administrazioek bereziki sustatutako faktore kultural eta sozial batzuetan oinarritu da garapen hori.

Gure lurraldeko kirol ekipamenduen garapen maila da herritarren portaera eta ohitura aktiboak sustatu dituen faktore erabakigarrienetako bat. Badakigu jarduera fisikorako espazioetatik gertu egotea dela biztanleriaren jarduera mailan eragina duen adierazleetako bat. Baina kirol jardunean eragiteaz gain, gure gizartean lehentasunezkoak diren zeharkako beste alderdi batzuetan ere eragiten du ekipamenduen garapen mailak, hala nola osasunean, hezkuntzan, elkarbizitzan, berdintasunean edo ekonomian. Izan ere, ekipamendu horietan egiten den kirolaren sustapenak eta kudeaketak inpaktu nabarmena du sektore horietan guztietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zeregin garrantzitsua izan du gure lurraldeko kirol ekipamenduen sarea osatzen. 2004-2007 eta 2008-2011 aldietan garatu ziren ekipamendu planetan lortu zen «oinarrizko ekipamendu sarea» ia osorik izateko helburua, eta hurrengo erronka izan zen hiriguneetan nahiz naturan eremu berriak sortzea ariketa fisikorako nahiz kirolerako, herritar guztiek are aukera gehiago izan ditzaten kirola eta ariketa fisikoa egiteko.

2017-2020 aldirako Kirol Ekipamenduen Planean, kirol-ekipamenduen «oinarrizko sarea» mantentzeko eta finkatzeko helburua lortu zen. Horretarako, lehentasuna eman zitzaion lehendik zeuden kirol-ekipamenduak birmoldatzeari eta erreformatzeari (osorik edo partzialki), horiek ordezkatzeari edo lekuz aldatzeari, baldin eta haien helburua kirol-jardueraren ohitura berrietara egokitzea, kirol-zerbitzu sorta zabalagoa eskaintzea edo herritar guztiek zerbitzu horiek intentsitate handiagoz, berdintasunez eta modu balioaniztunagoan erabiltzea bazen, bereziki kirola egiteko aukera zailagoak zituzten kolektiboei zuzenduta.

Azkeneko urte anitzeko plan hau eta gero, 2021. eta 2022. urteetako dirulaguntza lerroak garatu ziren, azken bi urteetan jasotako beharrei erantzuteko.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Bases reguladoras de las subvenciones del Plan de equipamientos deportivos de Gipuzkoa y convocatoria de los años 2023-2025.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 13 de junio de 2023 ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

El artículo 4c) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, dispone que es competencia de los órganos forales de los Territorios Históricos la aprobación de los planes territoriales sectoriales de equipamientos deportivos y de actividad física.

El nivel de práctica y el grado de interés que suscita la actividad física y deportiva muestra un grado de desarrollo en la sociedad guipuzcoana que se ha constituido en un elemento más de la propia identidad guipuzcoana. Este desarrollo se ha apoyado, sin duda, en distintos factores culturales y sociales a los que las administraciones públicas han prestado especial atención.

El grado de desarrollo de los equipamientos deportivos en nuestro territorio ha sido un factor que ha contribuido decisivamente en los hábitos de comportamiento activo de la población. Sabemos que disponer de espacios próximos para la práctica de la actividad física constituye un indicador que influye en los niveles de actividad de la población. Pero más allá de la propia práctica deportiva, incide también en aspectos transversales de primer orden para nuestra sociedad, como la salud, la educación, la convivencia, la igualdad o la economía. Alrededor de la promoción y de la gestión del deporte que se realiza de estos equipamientos hay un impacto considerable en estos sectores.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha desarrollado un papel muy importante en la consecución de una extensa red de equipamientos deportivos en Gipuzkoa. En los planes de equipamientos que se desarrollaron en los periodos 2004-2007 y 2008-2011, se alcanzó el objetivo de tener prácticamente cubierta la «red de equipamientos básicos», planteándose el siguiente reto de impulsar la creación de nuevas áreas de actividad físico-deportiva tanto en el medio urbano como en la naturaleza, para ampliar aún más las opciones de práctica físico-deportiva de toda la población.

En el plan de equipamientos deportivos 2017-2020 se alcanzó el objetivo de mantenimiento y consolidación de la «red básica» de equipamientos deportivos, priorizando la remodelación y reforma (total o parcial) de equipamientos deportivos ya existentes, sustitución o traslado de los mismos cuyo objeto de actuación persiguiera su adecuación a los nuevos hábitos de práctica deportiva, a ofrecer una gama de servicios deportivos más amplia o que posibilitaran un uso más intenso, igualitario y polivalente de los mismos por parte de toda la población, especialmente de aquellos colectivos que tuvieran un acceso más difícil a la práctica deportiva.

Desde este último Plan Plurianual se desarrollaron las líneas de subvención anuales de 2021 y 2022 para dar respuesta a las necesidades de los dos últimos años.

EK\CV GAO-I-2023-04533

Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da urte anitzeko plan berri bat garatzea eta, ondorioz, 2023-2025 aldirako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Plana onestea, udalei plangintza aukera gehiago eskaintzen baitizkie eta ekimena eraginkorragoa izan daiteke.

Planaren funtsezko ardatza kirol ekipamenduen oinarrizko sarea mantentzea eta sendotzea da; lehendik dauden kirol ekipamenduak birmoldatzea eta eraberritzea (osorik edo zati batean) lehenetsiz, bai eta ekipamendu horiek ordeztea edo lekuz aldatzea ere, baldin eta horien helburua bada kirol jardunaren ohitura berrietara egokitzea, kirol zerbitzuen aukera zabalagoa eskaintzea edo kirol eremu guztietan erabilera intentsiboa, berdintasunezkoa eta balioanitza ahalbidetzen duten kirol zerbitzuak eskaintzea.

Dirulaguntza lerro hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DPE) sartuta dago.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea «2023-2025. aldirako Gipuzkoako kirol ekipamenduen planeko» dirulaguntzen oinarri arautzaileak, zeinak I. eranskinean baitaude.

*Bigarren.* Onestea 2023-2025 urteetako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko dirulaguntzen deialdia, zeina II. eranskinean baitago.

*Hirugarren.* Baimentzea zortzi milioi ehun eta laurogei mila (8.180.000,00) euroko gastua, aurrekontuko partida hauen kargura:

— Bi milioi ehun eta laurogei mila euro (2.180.00,00), aurrekontuko 1.0940.400.761.01.01 2023 partidaren kargura.

— Hiru milioi euro (3.000.000,00), aurrekontuko 5.0940.400.761.01.01 2024 partidaren kargura.

— Hiru milioi euro (3.000.000,00), aurrekontuko 5.0940.400.761.01.01 2025 partidaren kargura.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtso bat aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko ekainaren 19a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (4533)

I. ERANSKINA

*«2023-2025 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko» oinarri arautzaileak.*

*1. Xedea.*

1. Oinarri hauetan arautzen dirulaguntzen xedea da 2023-2025 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko jarduketak finantzatzea, A eranskinean azaltzen diren xehetasunekin.

En este sentido, se considera necesario desarrollar un nuevo plan plurianual y, por ende, aprobar el Plan de Equipamientos Deportivos de Gipuzkoa 2023-2025, ya que ofrece mayores posibilidades de planificación a los ayuntamientos y la iniciativa puede ser más efectiva.

El eje fundamental de este plan es el mantenimiento y consolidación de la red básica de equipamientos deportivos, priorizando la remodelación y reforma, total o parcial, de los equipamientos deportivos existentes, así como su sustitución o traslado, siempre que su finalidad sea la adaptación a los nuevos hábitos de la práctica deportiva, la ampliación del abanico de servicios deportivos o la prestación de servicios deportivos que permitan un uso intensivo, igualitario y polivalente en todos los ámbitos deportivos.

La presente línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales del otorgamiento de subvenciones del «Plan de equipamientos deportivos para Gipuzkoa 2023-2025», que se adjuntan como anexo I.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de subvenciones del «Plan de equipamientos deportivos para Gipuzkoa 2023-2025», que se adjunta como anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto de ocho millones ciento ochenta mil euros (8.180.000,00), con cargo a la siguiente imputación presupuestaria:

— Dos millones ciento ochenta mil euros (2.180.000,00), con cargo a la partida presupuestaria 1 0940.400.761.01.01 2023.

— Tres millones (3.000.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 5.0940.400.761.01.01 2024.

— Tres millones (3.000.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 5.0940.400.761.01.01 2025.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 19 de junio de 2023.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (4533)

ANEXO I

*Bases reguladoras del «Plan de Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2023-2025».*

*1.ª Objeto.*

1. Es objeto de las subvenciones cuyo otorgamiento regulan las presentes bases la financiación de las actuaciones del plan de «Equipamientos Deportivos para Gipuzkoa 2023-2025», con el detalle recogido en el anexo A.

EK\CV GAO-I-2023-04533

2. Lurraldeko kirol instalazioak hobetzeko dirulaguntza lerroaren bitartez, kirol ekipamenduen sare bereziki irisgarria, zabal, anitz eta seguru bat lortu nahi da. Dirulaguntzaren xede diren instalazioetan gauzatzen diren esku hartzeen helburu espezifikoak, honako hauek dira:

Lehendik dagoen kirol-eskaintza herritar guztiek eskura izan dezaten bermatzea.

Biztanleria aktiboaren kirol jarduera areagotzen lagunduko duten esku hartzeak sustatzea.

Biztanleria ez aktiboaren kirol jarduera fisikoa egiteko aukerak hobetzea, instalazio berean egin ditzaketen modalitateen aukera handituz.

Kirol instalazioen irisgarritasun, erabilgarritasun, segurtasun baldintzak hobetzea.

Era berean, lehendik dauden instalazioen barruan espazio berriak sortzea bultzatzen da, herritar guztiek kirola egiteko aukera gehiago izan ditzaten, zeinek bere gustu eta interesen arabera.

Oro har, esku hartzeak xede hauek lortzeko lagungarriak diren baloratuko da:

— Kirol ekipamenduen «oinarrizko sarea» hobetzea, mantentzea eta sendotzea, arreta berezia jarriz lehendik dauden kirol ekipamenduak birmoldatzean eta eraberritzean. Oinarri arautzaile hauen B eranskin gisa gehitzen da oinarrizko sarean sartutako kirolguneen zerrenda, oinarrizko sareari erabateko irisgarritasuna ematea bereziki azpimarratuz.

— Kirol ekipamenduak ordezkatzea edo lekualdatzea, kirol ohitura berrietara eta/edo tokiko garapenera egokitu nahi direnean.

— Lehendik dagoen instalazioren baten barruan edo hari erantsita, kirol zerbitzuen aukera zabalagoa eskaintzea, edo herritar guztiei eta, bereziki, kirolean jarduteko zailtasun handienak dituzten kolektiboei, zerbitzu horiek intentsitate handiagoz, berdintasunez eta askotariko moduetan erabiltzeko aukera ematea.

— Hiriguneetako zein naturguneetako aisialdiko kirol eremuak eta jarduera eremuak egokitzea; herritar guztiek erabiltzeko direnak, baina, bereziki, maila sozioekonomiko baxuko (edo langabezia tasa altuko) biztanle taldeentzat direnak.

— Hiriguneen eta naturguneen aprobetxamendua sustatzea jarduera fisikorako eta kirolerako, jarduera hori ingurunea eta ingurumena babestearekin bateragarri eginez.

— Hiriguneak birpentsatzea eta Gipuzkoako udalerriei gizarte kohesio handiagoa ematea, hiriak eta hirigintza eraldatuz; izan ere, kohesioaren lagungarri izan daiteke aire zabaleko espazio berriak garatzea ezohiko kirol jarduerak edo jarduera fisikoa egiteko, batez ere, interes desberdinak izateagatik edo egoera sozioekonomikoarengatik egungo instalazioetan fisikoki aktibo egoteko ohitura garatu edo mantentzeko aukerarik ikusten ez duten biztanle taldeei dagokienez.

— Kirol ekipamenduaren kudeaketa arrazionala bultzatzea. Horretarako, aurrekontuaren ikuspegitik bideragarriak izan behar dute esku hartzeek, eta instalazioaren etorkizuneko kudeaketaren planteamendua barne hartu.

— Udalerri txikietako oinarrizko kirol ekipamenduak mantentzen laguntzea.

3. Plan honetan, titulartasun publikoko ikastetxeetako kirol instalazioak sartu ahal izango dira. Horrelako kasuetan, Foru Aldundiaren esku hartzea bideratzeko lankidetza hitzarmenak egingo dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta dagokion toki erakundearekin, eta haietan jasoko da zer betebehar dituen bakoitzak, premiak zehazteari, proiektua diseinatu, definitu eta gauzatzeari, eta instalazioa kudeatzeari dagokienez. Hitzarmen horiek bat etorriko dira 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak,

2. La línea de subvenciones para la mejora de las Instalaciones deportivas del Territorio está orientada a conseguir una red de equipamientos deportivos especialmente accesible, amplia, plural, segura, y sostenible. Como objetivos específicos de las intervenciones que se ejecuten en las instalaciones y objeto de subvención:

Garantizar el acceso a la oferta deportiva ya existente por parte de toda la población.

Que contribuyan a intensificar la práctica deportiva de la población activa.

Mejorar las oportunidades de práctica de la actividad físico deportiva de la población inactiva, ampliando el abanico de modalidades que pueden practicar en una misma instalación.

Mejorar las condiciones de accesibilidad, usabilidad y seguridad de las instalaciones deportivas.

Asimismo, se impulsa generar nuevos espacios dentro de instalaciones ya existentes que den mayores oportunidades de práctica deportiva a toda la población en función de los distintos gustos e intereses.

En general se valorará que las intervenciones contribuyan a:

— Mejorar, mantener y consolidar la «red básica» de equipamientos deportivos, prestando especial atención a la remodelación y reforma de equipamientos deportivos ya existentes. Se adjunta como anexo B a estas bases reguladoras la relación de espacios deportivos incluidos en la red básica, haciendo especial hincapié en dotar a la red básica de accesibilidad plena.

— Sustituir o trasladar equipamientos deportivos cuando se persiga su adecuación a los nuevos hábitos de práctica deportiva y/o para el desarrollo local.

— Ofrecer dentro o anexa a alguna instalación ya existente, una gama de servicios deportivos más amplia o que posibilite un uso más intenso, igualitario y polivalente de los mismos por parte de toda la población, especialmente de aquellos colectivos que tienen un acceso más difícil a la práctica deportiva.

— Adecuar espacios deportivos y áreas de actividad, tanto urbanos como en la naturaleza, de carácter recreativo, que estén orientados a toda la población, especialmente aquellos destinados preferentemente a grupos de población de bajo nivel socioeconómico (o altos niveles de desempleo).

— Impulsar el aprovechamiento de los espacios urbanos y del medio natural para la actividad físico-deportiva, haciéndolos compatibles con la protección del entorno y del medio ambiente.

— Repensar los espacios urbanos y dotar de mayores niveles de cohesión social a los municipios guipuzcoanos a través de la transformación urbana y urbanística a la que pueden contribuir el desarrollo de nuevos espacios al aire libre para la práctica deportiva no convencional o de la actividad física, especialmente por grupos de población que por tener intereses distintos o por circunstancias socioeconómicas, no ven en las instalaciones actuales, la oportunidad de construir o mantener un hábito para estar físicamente activo/a.

— Impulsar una gestión racional del equipamiento deportivo. Para ello, las intervenciones deben ser viables desde el punto de vista presupuestario, con un planteamiento de la gestión futura de la instalación.

— Colaborar en el mantenimiento de una red de equipamientos deportivos básicos en los pequeños municipios.

3. Podrán ser incluidas en el Plan instalaciones deportivas ubicadas en centros escolares de titularidad pública. En este supuesto, la intervención foral se instrumentará a través de convenios de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Consejería de Educación del Gobierno Vasco y la entidad local correspondiente, donde se recojan las obligaciones respectivas tanto en la definición de necesidades como en el diseño, ejecución y definición del proyecto y en la gestión de la instalación.

EK\CV GAO-I-2023-04533

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. kapituluan aurreikusten duen araubidearekin.

Betiere, bermatu beharko da instalazioa ez dela eskolarako bakarrik erabiliko.

4. Laguntza hauetan sartutako kirol instalazio guztiek aurrez ikusi eta bermatu beharko dute Gipuzkoako Foru Aldundiak berariaz izendatutako erabiltzaileek edo berariaz izendatutako erakunde edo pertsonek doan erabili ahal izango dituztela, salbuespenezko egoeretan. Instalazioaren barnean hartutako eremuen doako erabilera hori urtean gutxienez 20 ordukoa izango da, obrak amaitu eta hurrengo 20 urteetan.

5. Esku hartze hauek dirulaguntza lerro hauen finantzaketatik kanpo utziko dira, «egoki iritzitako proiektu» baten barruan sartu ezin direlakoan:

a) Kirol instalazioaren lurzatiaren urbanizazioaren, lorategiaren eta antzekoen ondoriozko gastuak, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak «egoki iritzitako proiektuan» sartu gabeko eremuei dagozkienak, ez direlako berez kirola egitekoak edo espazioaren funtzionamendurako beharrezkoak (ostalaritzako eremuak, eta gizartearen, kulturaren zein beste arlo bateko jarduerak egitekoak).

b) Entitate sustatzaileari aurrekontu ekarpenik egitea eskatuko ez dioten kirol instalazioak, zorrozki kirolekoa ez den hirigintzako esku hartze zabalago baten barruan egingo direlako.

6. Egoki iritzitako proiektua zehazteko irizpideek kontuan hartuko dituzte, bai proiektua garatuko den udalerrietako biztanleriari buruzko alderdiak, bai proiektu horrek kirol arloan daukan interesari buruzko alderdiak.

a) Diruz lagunduko diren proiektuek kirolerako daukaten interesaren ikuspegitik, proiektuak lor daitekeen puntuazioaren % 50etik beherako puntuazioa lortu badu, egoki iritzitako proiektuaren aurrekontua ezingo da izan, aurretik aplikatutako irizpideak aplikatu ondoren, zenbateko horren % 80 baino handiagoa. Muga hori ez zaie aplikatuko 5.000 biztanletik beherako udalerrietan garatzen diren proiektuei.

b) Egoki iritzitako proiektuaren aurrekontua zehazteko neurri horiek ez zaizkie aplikatuko futbol, errugbi eta belar hockeyko zelaietako zoladurak soropil artifizialarekin ordezteko proiektuei.

*2. Dirulaguntzen onuradunak.*

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Gipuzkoako toki erakundeak (udalak, udal erakunde autonomoak, tokiko sozietate publikoak, eta beste sozietate batzuk, baldin eta haietan toki erakundeen partaidetza kapitalaren % 50etik gorakoa bada).

2. Entitate bakoitzak gehienez bi eskaera aurkez ditzake, betiere bi lerro desberdinetakoak badira, eta biek jaso dezakete dirulaguntza, gutxieneko puntuazio nahikoa lortuz gero. Dena den, ezingo dira gainditu A eranskinean ezarritako dirulaguntzen mugak.

*3. Laguntza emateko prozedura.*

Dirulaguntzak elkarrekiko norgehiagokaren bidez emango dira.

*4. Hautaketa irizpideak.*

1. Planaren barruan sartuko diren kirol ekipamenduak hautatzeko, aurretik azaldutako helburuen arabera, jarraian azaltzen diren irizpideak erabiliko dira.

Estos convenios se ajustarán al régimen previsto en el Capítulo VI, del Título Preliminar, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En todo caso, deberá garantizarse que el uso de la instalación trascienda del estrictamente escolar.

4. Todas las instalaciones deportivas incluidas en estas ayudas deberán prever y garantizar su utilización gratuita, en circunstancias excepcionales, por parte de las personas usuarias expresamente designadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa o de las entidades o personas expresamente designadas. Dicha utilización gratuita se materializará en un mínimo de 20 horas anuales en los espacios incluidos en la instalación durante los 20 años siguientes al de finalización de las obras.

5. Quedarán excluidas de la financiación derivada de estas líneas de subvenciones, por entender que no pueden considerarse incluidas en un «proyecto considerado idóneo», las siguientes intervenciones:

a) Los gastos derivados de la urbanización, jardinería o similares de la parcela donde se proyecta la instalación deportiva, así como los relacionados con los espacios no incluidos en el «proyecto considerado idóneo» por el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por no estar específicamente destinados a la práctica deportiva o a su funcionamiento (espacios destinados a hostelería, actividades sociales, culturales u otras).

b) Aquellas instalaciones deportivas cuya construcción no suponga ninguna aportación presupuestaria por parte de la entidad promotora de la iniciativa, al estar incluidas en una operación urbanística más compleja que la estrictamente deportiva.

6. Los criterios para la determinación del proyecto considerado idóneo, tendrán en cuenta, tanto aspectos de población de los municipios donde está previsto su desarrollo, cómo aspectos de interés deportivo del proyecto en cuestión.

a) Desde el punto de vista del interés deportivo de los proyectos a subvencionar, en los supuestos en los que este proyecto haya obtenido una puntuación inferior a 50 % de la puntuación máxima posible, el presupuesto del proyecto considerado idóneo, obtenido tras aplicar los criterios aplicados anteriormente, no podrá ser superior al 80 % de dicha cantidad. Esta limitación no será de aplicación a los proyectos que se desarrollen en municipios de menos de 5.000 habitantes.

b) Estas medidas para determinar el presupuesto de proyecto considerado idóneo no serán de aplicación a aquellos proyectos en los que la intervención consista en sustituir los pavimentos existentes en campos de fútbol, de rugby y hockey hierba por otros de césped artificial.

*2.ª Entidades beneficiarias de estas subvenciones.*

1. Podrán ser beneficiarias de las subvenciones cuyo otorgamiento es objeto de estas bases las entidades locales de Gipuzkoa (ayuntamientos, organismos autónomos municipales, sociedades públicas locales, otras sociedades en las que entidades locales tengan una participación superior al 50 % de su capital).

2. Cada entidad puede presentar hasta un máximo de dos solicitudes siempre y cuando pertenezcan a dos líneas distintas, pudiendo resultar subvencionadas ambas si obtienen puntuación suficiente para ello. En cualquier caso, no se podrán superar los límites de subvención establecidos en el anexo A.

*3.ª Procedimiento de concesión.*

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva.

*4.ª Criterios de selección.*

1. La selección de los equipamientos deportivos que se acojan al plan se ajustará, de acuerdo con los objetivos expuestos anteriormente, a los criterios que se exponen a continuación.

EK\CV GAO-I-2023-04533

2. Hauek dira hautaketa irizpideak 1. lerrorako (ohiko kirol ekipamenduak ordeztea, lekuz aldatzea, birmoldatzea, handitzea eta birgaitzea, futbol zelaiak izan ezik) eta 2. lerrorako (ezohiko kirol eremuak egokitzea, herritar guztiek kirola egin dezaten):

a) Lurralde eremua, Gipuzkoako kirol ekipamenduen oinarrizko sareko kalifikazioaren arabera (gehienez 15 puntu, 1. Lerrorako; eta gehienez 9 puntu, 2. Lerrorako).

* A1 azpiatala: azpiatal honetan, proposatutako jarduketa «oinarrizko sarean» dagoen ekipamendu batean egin nahi den hartuko da kontuan: (6 puntu, gehienez).

— Eskualdeko oinarrizko sarean sartutako ekipamenduak (6 puntu).

— Udalaz gaindiko oinarrizko sarean integratutako goi mailako ekipamenduak: (4 puntu).

— Udalaz gaindiko oinarrizko sarean integratutako behe mailako ekipamenduak: (2 puntu).

— Tokiko oinarrizko sarean integratutako ekipamenduak: (1 puntu).

— Inongo oinarrizko sarean sartuta ez dauden ekipamenduak: (0 puntu).

Hautapen irizpide hori ez zaie aplikatuko 2. lerroan aurkeztutako eskaerei.

* A2 azpiatala: azpiatal honetan eragin eremua hartuko da kontuan, Gipuzkoako ekipamenduen oinarrizko sareko instalazio gisa daukaten kalifikaziotik harago, halakorik izanez gero: (9 puntu, gehienez).

— Tokiko/tokiz gaindiko ekipamendua, haren eragin eremua 40.000 biztanletik gorakoa denean:

≡ Ez badago izaera bereko beste instalaziorik eragin eremu osoan: (9 puntu).

≡ Ez badaude izaera bereko bi instalazio baino gehiago eragin eremu osoan: (7 puntu).

— Tokiko/tokiz gaindiko ekipamendua, haren eragin eremua 40.000 biztanletik beherakoa eta 25.000 biztanletik gorakoa denean:

≡ Ez badago izaera bereko beste instalaziorik eragin eremu horretan: (5 puntu).

≡ Ez badaude izaera bereko bi instalazio baino gehiago eragin eremu horretan: (3 puntu).

— Eskualdeko ekipamenduak, edo haien eragin eremua 25.000 pertsona baino gutxiagoko biztanlegune bat denean: (1 puntu).

— Kirol instalazioaren gehieneko eragin eremuak entitate eskatzailea den eskualdea hartzen du. Horretarako, Batzar Nagusiak egindako banaketa hartuko da erreferentziatzat; haren esteka eransten da, https://www.bngipuzkoa.eus/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=05 eta, hala badagokio, mugakideak diren beste udalerriak. Eragin eremu hori hartuko da kontuan, betiere ingurune horretan ez badago ezaugarri bereko beste instalaziorik.

Instalazioa dagoen udalerriak kirol zerbitzu mankomunatuetarako sarbidea badu, akordio horretan elkartutako udalerrien batura hartuko da eragin eremutzat. Kirol zerbitzu mankomunatuak dituzten udalerrietan dauden instalazioei puntu 1 gehituko zaizkie.

Zerbitzu mankomunatutzat hartzen dira udalerri batek baino gehiagok parte hartzen dutenean ekipamenduaren edo kudeaketaren finantzaketan edo, bestela, zerbitzuen kudeaketa mankomunatua dakarten zerbitzuak, hala nola Mugiment txartela. Era berean, instalazioa erabiltzeko akordioan parte hartzen

2. Los criterios de selección para la línea 1: Sustitución, traslado, remodelación, ampliación y rehabilitación de equipamientos deportivos convencionales (a excepción de campos de fútbol) y la línea 2: Adecuación espacios deportivos no convencionales al objeto de facilitar la práctica deportiva de toda la población, son los siguientes:

a) Ámbito territorial según la calificación en la red básica de equipamientos deportivos de Gipuzkoa (hasta 15 puntos para línea 1 y hasta 9 puntos para la línea 2).

* Sub-apartado A1: En este sub-apartado, se tendrá en cuenta si la actuación propuesta corresponde a un equipamiento incluido en la «red básica»: (hasta 6 puntos).

— Equipamientos integrados en la red básica de ámbito comarcal: (6 puntos).

— Equipamientos integrados en la red básica de ámbito supramunicipal de nivel superior: (4 puntos).

— Equipamientos integrados en la red básica de ámbito supramunicipal de nivel inferior: (2 puntos).

— Equipamientos integrados en la red básica de ámbito local: (1 punto).

— Equipamientos no integrados en la red básica de ningún ámbito: (0 puntos).

Este criterio de selección no resulta de aplicación a las solicitudes presentadas a la línea 2.

* Sub-apartado A2: En este sub-apartado, se tendrá en cuenta su ámbito de influencia más allá de la calificación que tuviera como instalación perteneciente a la red básica de equipamientos de Gipuzkoa si así fuera: (hasta 9 puntos).

— Equipamiento local/supralocal cuando su ámbito de influencia es superior a 40.000 habitantes:

≡ Cuando no exista otra instalación de la misma naturaleza en todo el ámbito de influencia: (9 puntos).

≡ Cuando no haya más de dos instalaciones de la misma naturaleza en el ámbito de influencia: (7 puntos).

— Equipamiento local / supralocal cuando su ámbito de influencia es inferior a 40.000 habitantes y superior a 25.000:

≡ Cuando no exista otra instalación de la misma naturaleza en su ámbito de influencia: (5 puntos).

≡ Cuando no existan más de dos instalaciones de la misma naturaleza en su ámbito de influencia: (3 puntos).

— Equipamientos de ámbito comarcal o cuando su ámbito de influencia sea un núcleo de población de menos de 25.000 personas: (1 punto).

— El ámbito máximo de influencia de la instalación deportiva abarca la comarca a la que pertenece la entidad solicitante, para ello tomará como referencia la distribución realizada según Juntas Generales, se adjunta enlace del mismo, https://www.bngipuzkoa.eus/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=05 y, en su caso, otros municipios limítrofes. Se considerará este ámbito de influencia siempre y cuando no exista otra instalación de las mismas características en ese entorno.

Si el municipio en el que se ubica la instalación tiene el acceso a los servicios deportivos mancomunados, se tendrá en cuenta como ámbito de influencia la suma de los municipios que pertenecen al acuerdo. Se sumará 1 punto a la instalación ubicada en municipios con servicios deportivos mancomunados.

Se consideran servicios mancomunados cuando participa más de un municipio en la financiación del equipamiento, o en la financiación de la gestión, o bien aquellos que incorporan una gestión mancomunada de los servicios como Mugiment txartela. También cuando el uso de la instalación se de en las mismas

duten udalerrietako erabiltzaileentzat baldintza berberetan eta zirkulazio askatasun berean egiten denean ere halakotzat hartuko dira.

Nolanahi ere, esku hartzearen eragin eremua udalerria baino zabalagoa dela jotzeko, esku hartzeari lotutako instalazioak mankomunitateko edo eragin eremuko partetzat hartzen diren egoiliarren eskura egon beharko du.

b) Instalazioaren diseinua kirol erabileraren eta instalazioaren irisgarritasunaren ikuspegitik: (45 puntu, gehienez).

— B1 azpiatala: azpiatal honetan, esku hartzearen premia objektiboa hartuko da kontuan. Esku hartzeak dirulaguntza hauen 1.2 klausulan adierazitako helburuei zer ekarpen egiten dien baloratuko da: (40 puntu, gehienez).

Esku hartzearen premia objektiboa baloratzeko, kontuan hartuko da esku hartzearen garrantzia handia, ertaina edo txikia den.

Esku hartzea beharrezkoa denean instalazioan egiten den kirol eskaintzarako irisgarritasuna eta instalazioaren segurtasuna bermatzeko, garrantzi handikotzat hartuko da. Garrantzi ertainekotzat joko dira, berriz, honako hauek: zerbitzuaren kalitatea hobetu eta hura erakargarriago egiten duten baina irisgarritasunean, segurtasunean eta elementu garrantzitsuetan eraginik ez duten jarduketak, bai eta kirol jarduera fisikoaren maila areagotzeko aukera ematen duten jarduketak ere (espazioa estaltzea, birbanatzea edo birdiseinatzea eta abar). Azkenik, garrantzi gutxikotzat joko da esku hartzea beharrezkoa ez denean kirol jardueraren garapena bermatzeko edota kirol instalazioa gutxi erabiliko dela aurreikusten denean edo balioaniztuna ez denean.

* Irisgarritasuna:

— Esku hartzearen eremuak hiru espazio edo gehiago erabat edo partez iristezinak baditu, eta esku hartzeak egoera hori konpontzen badu (esku hartzearen helburu nagusia izan nahiz ez): (15 puntu).

— Esku hartzearen eremuak bi espazio erabat edo partez iristezinak baditu, eta esku hartzeak egoera hori konpontzen badu (esku hartzearen helburu nagusia izan nahiz ez): (10 puntu).

— Esku hartzearen eremuak espazio bat erabat edo partez iristezina badu, eta esku hartzeak egoera hori konpontzen badu (esku hartzearen helburu nagusia izan nahiz ez): (5 puntu).

Hautapen irizpide horrek adierazitako balioaren erdia puntuatuko du, 2. lerrora aurkeztutako eskaeretarako.

* Segurtasuna instalazioetan eta ingurunean:

— Instalazioaren segurtasuna arriskuan badago eta esku hartzea beharrezkoa bada instalazioko kirol jarduera fisikoa segurtasun baldintzetan egiten jarraitu daitekeela bermatzeko. Halako obratzat hartuko dira oinarrizko betekizun hauek betetzeko egiten direnak: segurtasuna eta bizigarritasuna, egiturazko segurtasuna, suteetarako segurtasuna, erabilera segurtasuna, higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa, zarataren aurkako babesa eta energia aurreztea.

— Jarduketaren xede den instalazioa kirol anitzekoa bada: (15 puntu).

— Jarduketaren xede den instalazioa kirol anitzekoa ez bada, baina erabilera anitzeko espazio bat badu: (10 puntu).

— Jarduketaren xede den instalazioa kirol bakarrekoa bada eta gutxienez kirolgune bat badu: (5 puntu).

* Jarduketa beharrezkoa izatea instalazioaren erabilgarritasuna handitzeko.

Instalazioaren balio aniztasuna eta erabilera aniztasuna handitzea eta/edo instalazioa erabil daitekeen orduen kopurua gehitzea lortzen badu, garrantzi handiko jarduketa izango da. Bietan

condiciones y misma libertad de circulación para los usuarios de los municipios que participen del acuerdo.

En cualquier caso, para que se considere que el ámbito de influencia de la intervención es superior al municipio, la instalación en la que se interviene deberá estar a disposición de las/os residentes de los municipios que se consideran parte de la mancomunidad o del ámbito de influencia.

b) Diseño de la instalación desde el punto de vista del uso deportivo y accesibilidad de la instalación: (hasta 45 puntos).

— Sub-apartado B1: En este sub-apartado, se considerará la necesidad objetiva de la intervención. Se valorará lo que la intervención aporta a los objetivos declarados en la cláusula 1.2 de las presentes subvenciones: (hasta 40 puntos).

La necesidad objetiva de la intervención se valorará a partir de la consideración de importancia alta, media o baja de la intervención.

Cuando la intervención es necesaria para garantizar la accesibilidad a la oferta deportiva que se desarrolla en la instalación, y seguridad en la instalación será de importancia alta. Se considerarán de importancia media las actuaciones que mejoran la calidad del servicio haciéndolo más atractivo, pero no intervienen ni en la accesibilidad, ni en la seguridad ni en los elementos trascendentales. Son también aquellas que permiten intensificar el nivel de práctica físico deportiva (cubrición, redistribución o rediseño del espacio existente etc.) Asimismo, se considerará de importancia baja cuando la intervención sea poco necesaria para garantizar el desarrollo de la práctica deportiva y/o la previsión de uso de la instalación deportiva sea bajo o no sea polivalente.

* Accesibilidad:

— Cuando el ámbito de intervención incluya tres o más espacios total o parcialmente inaccesibles y la intervención revierta esta situación (siendo o no el propósito principal de la intervención): (15 puntos).

— Cuando el ámbito de intervención incluya dos espacios total o parcialmente inaccesibles y la intervención revierta esta situación (siendo o no el propósito principal de la intervención): (10 puntos).

— Cuando el ámbito de intervención incluya un espacio total o parcialmente inaccesibles y la intervención revierta esta situación (siendo o no el propósito principal de la intervención): (5 puntos).

Este criterio de selección puntuará a la mitad del valor indicado para las solicitudes presentadas a la línea 2.

* Seguridad en las instalaciones y su entorno:

— Cuando la seguridad de la instalación esté comprometida y sea necesaria la intervención para garantizar la continuidad de la actividad físico deportiva de la instalación en condiciones de seguridad. Se consideran este tipo de obras las encaminadas a satisfacer los requisitos básicos de seguridad y habitabilidad, seguridad estructural, seguridad en caso de incendio, seguridad de utilización, higiene, salud y protección del medio ambiente, protección contra el ruido y ahorro de energía.

— Si la instalación en la que se actúa es polideportiva: (15 puntos).

— Si la instalación en la que se actúa no es polideportiva, pero contiene un espacio multiusos: (10 puntos).

— Si la instalación en la que se actúa es monodeportiva y contiene al menos un espacio deportivo: (5 puntos).

* Cuando la actuación es necesaria para incrementar la usabilidad de la instalación.

Se valorará como importancia alta aquellas actuaciones que consiguieran aumentar el nivel de polivalencia y la multiplicidad de usos de la instalación y/o incrementar el nuevo de horas de

ala bietan, ikusle berriak erakartzearekin edo erabiltzaile kopurua handitzearekin lotuta dago garrantzi handiko balorazioa.

1) Jarduketak espazio berriak sortzen ditu eta erabilera nabarmen handituko duten elementuak txertatzen ditu lehendik zegoen instalazio batean. Ondorio hori kasu hauetan lortzen dela ulertuko da:

— Jarduketa 5 kirol modalitate fisiko edo gehiago praktikatzeko gaitzen den espazio batean egiten bada eta herritar guztientzat programak garatzen badira, garrantzi handikoa izango da: (10 puntu).

— 3 edo 4 gorputz-kirol modalitateren praktika gaitzen badu, garrantzi ertainekoa izango da: (5 puntu).

— 1 edo 2 gorputz-kirol modalitateren praktika gaitzen badu, garrantzi txikikoa izango da: (3 puntu).

2) Instalazio nagusian beste kirol modalitate fisiko bat gehitzen duten elementuak txertatzen dira, eta, horrela, beste herritar batzuen interesetara hurbiltzen da, eta bestelako interesak dituzten pertsonak eta bestelako biztanle segmentu batzuk kirol jarduera fisikora batzea sustatzen da, bakoitzaren gustuen arabera.

Jarduketaren helburua espazio berriak sortzea bada, garrantzi handikoa izango da instalazioa balioaniztasun maila areagotzeko handitzen denean, eta sortutako espazio berriak bestelako interesak dituzten publikoentzako erabilera ugariak onartzen dituenean.

Udalerriak 500 biztanle baino gutxiagoko errolda badu, espazio berriak sortzen dituen edozein jarduketa izango da garrantzi handikoa, alde batera utzita zenbat kirol zerbitzu berri iristen diren bestelako biztanle segmentu batzuengana.

— Jarduketa garrantzi handikoa izango da, bi zerbitzu edo gehiago izan eta bi biztanle segmentutara edo gehiagotara iristen bada: (5 puntu).

— Jarduketa garrantzi ertainekoa izango da, bi zerbitzu edo gehiago baditu eta biztanleria segmentu batera edo gehiagotara iristen bada: (3 puntu).

— Jarduketa garrantzi txikikoa izango da, zerbitzu bakarra badu eta biztanleria segmentu bakarrera iristen bada: (1 puntu).

3) Esku hartzeak ez du espazio berririk sortzen; aldiz, erabilera orduak edo erabilera azalera handitzen ditu, eta, ondorioz, ikusle berriak edo ikusle gehiago erakartzen ditu.

— Instalazioari zerbitzuak gehitzen zaizkio edo txukundu, birgaitu edo hobetu egiten da, maizago, luzaroago eta/edo denbora tarte luzeagoetan erabili ahal izan dadin (aldagelak, komunak, edateko uraren puntuak, argiztapena, materialak ordezkatzea edo beste edozein birmoldaketa edo zerbitzu, oinarrien arabera diruz lagundu daitekeen xedean baztertuta ez dagoena).

— Astean 10 ordu gehitzen baditu zabaltze ordutegian: (5 puntu).

— Astean 5 eta 9 ordu bitartean gehitzen baditu zabaltze ordutegian: (3 puntu).

— Astean 1 eta 4 ordu bitartean gehitzen baditu zabaltze ordutegian: (1 puntu).

5. eranskina beteko da, ordu kopurua gehitu dela justifikatzeko.

— B2 azpiatala: azpiatal honetan erabiltzaileen maila sozioekonomikoa edozein izanik ere sarbide librea ematen duten kirol ekipamenduetan egindako jarduketak baloratuko dira: (gehienez 5 puntu).

usabilidad de la instalación. En ambos casos, la valoración de importancia alta tiene que ver con la incorporación de nuevos públicos o el incremento del número de usuarias/os de la misma.

1) Si la actuación genera nuevos espacios e implica implementar una instalación ya existente con elementos que vayan a incrementar sustancialmente el uso de la misma. Se considera que se consigue este efecto cuando:

— Tendrá consideración de ser una actuación de importancia alta cuando la actuación sea sobre un espacio en el que se habilita la práctica de 5 modalidades físico deportivas o más y si se desarrollan programas para toda la población en general: (10 puntos).

— En el caso de que se habilite la práctica de 3 o 4 modalidades físico-deportivas, tendrá la consideración de importancia media: (5 puntos).

— En el caso de que se habilite la práctica de 1 o 2 modalidades físico-deportivas, tendrá la consideración de importancia baja: (3 puntos).

2) A la instalación principal se añaden elementos que incorporan la práctica de otra modalidad físico-deportiva y se acercan así a los intereses de otra parte de la población favoreciendo que más personas con intereses distintos y segmentos de población distintas puedan acceder según sus gustos a la actividad físico deportiva.

Si es una actuación orientada a generar nuevos espacios, se considerará de importancia alta cuando la ampliación de la instalación esté orientada a incrementar el grado de polivalencia y el nuevo espacio que se genere acepte la multiplicidad de usos para públicos con intereses distintos.

En el caso de los municipios con población censada inferior a 500 habitantes que generen nuevos espacios, tendrá importancia alta al margen del número de los nuevos servicios deportivos que alcancen a segmentos de población distintos.

— Tendrá consideración de ser una actuación de importancia alta cuando la actuación alcance a dos o más servicios y a dos o más segmentos de población: (5 puntos).

— Tendrá consideración de ser una actuación de importancia media cuando la actuación alcance a dos o más servicios y a uno o más segmentos de población: (3 puntos).

— Tendrá consideración de ser una actuación de importancia baja cuando la actuación alcance a un servicio y a un segmento de población: (1 punto).

3) En el caso de que no genere nuevos espacios sino que la intervención implique incremento de horas de uso o de superficie de uso y tenga como consecuencia la incorporación de nuevos públicos o más público:

— A la instalación se le añaden servicios o se remodela, rehabilita o mejora para favorecer que la instalación pueda ser utilizada con mayor frecuencia, y/o durante más tiempo o durante espacios de tiempo más largos (véase, vestuarios, aseos, puntos de agua potable, iluminación, sustitución de materiales o cualquier otra remodelación o servicios que no estén excluidos en el objeto subvencionable de las bases...).

— Si incrementa el número de horas de apertura semanal en más de 10 horas: (5 puntos).

— Si incrementa el número de horas de apertura semanal entre 5 y 9 horas: (3 puntos).

— Si incrementa el número de horas de apertura semanal entre 1 y 4 horas: (1 punto).

Se rellenará el anexo 5 como justificación del incremento de horas.

— Sub-apartado B2: en este subapartado se valorarán las actuaciones en equipamientos deportivos que permitan el acceso libre independientemente del nivel socio-económico de las personas usuarias: (hasta 5 puntos).

EK\CV GAO-I-2023-04533

* Udalerriak prezio politika bat ezartzeko ordenantzak onartuta izatea, biztanle talde kaltebera hauei hobariak emateko (1,5 puntu, gehienez):

— Familia ugariak: (0,5 puntu).

— 65 urtetik gorakoak: (0,5 puntu).

— Langabeak: (0,5 puntu).

— DSBEaren jasotzaileak: (0,5 puntu).

— Desgaitasuna duten pertsonak: (0,5 puntu).

* Maila sozioekonomikoan egoera zailean dauden inguruetako kirol ekipamenduetan jarduketak baloratuko dira. Kirol ekipamenduaren eremu geografikoko Euskal Estatistika Erakundearen 2011ko Medea gabezia indizea baloratuko da. Maila sozioekonomiko baxukotzat hartuko dira indize horren azpitik dauden bi mailak (gehienez 1,5 puntu). 1,5 puntu emango da, ekipamendua Medeako 5. indizea edo Medeako 4. indizea dituen eremu geografiko batean badago.

Udalerriak 500 biztanle erroldatu baino gutxiago badu (dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean Eustatek ematen dituen datuen arabera zenbatuko da udalerriko biztanleria), jarduketak Euskal Estatistika Erakundearen 2011ko Medea indizea bakarrik kontuan hartuta baloratuko dira, udalerriak lehenago aipatutako ordenantzak dituen ala ez kontuan hartu gabe. Horrela, maila sozioekonomikoan egoera zailean dauden inguruneetan dauden kirol ekipamenduetan egindako jarduerak baloratuko dira. Kirol ekipamendua dagoen eremu geografikoko Medea gabezia indizea baloratuko da. Adierazle horren beheko bi mailak hartuko dira maila sozioekonomiko baxutzat (2 puntu). Ekipamendua Medearen 5 indizea duen eremu geografiko batean badago, 2 punturekin baloratuko da, eta Medearen 4 indizea duen eremu batean badago, berriz, 1 punturekin.

* Deialdiaren urtean orientazio zerbitzua martxan duten udalerriak: (1 puntu).

* Deialdiaren urtean eskola kirol egokituko programa bat abian duten udalerriak: (1 puntu).

* 1. lerroan instalazio berriak onartuko dira, baldin eta, udalerriak 500 biztanle erroldatutik behera izanik, familia eta kirol jarduera bateratzeko laguntzen badute: (puntu 1).

Irizpide hori betetzen duela ulertzen da, baldin eta 2023-2025 aldiko Kirol Ekipamenduen Planaren indarraldian honako programa hauetakoren bat badu:

— Enpresan edo enpresetan egin beharreko esku hartzeak, joan-etorri aktiboak barnean hartzen dituztenak.

— Enpresan edo enpresetan egin beharreko esku hartzeak, podometroak erabiltzea edo eskailerak seinalizatzea barnean hartzen dutenak.

— Udalerriko kirol eskaintzan parte hartzeko prezioa murriztea (matrikula, ikastaroaren prezioak, abonamenduak, proba bonoa eta abar), esku hartzearen xede diren kolektiboei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko programak sartzeko laguntza gisa.

— Udalerriko kirol jarduerei buruzko komunikazio ekintzak, xede biztanleriari zuzendutako merkataritza edo lan ordutegietarako egokitu daitezkenak.

— Gurasoek seme-alabekin batera egin ditzaketen jarduerei buruzko komunikazio ekintzak.

— Kirol eskaintza egokitzea, gurasoek seme-alabekin batera egin ditzaketen jarduerak koordinatzeko.

* Casos en los que el municipio disponga de ordenanzas aprobadas para establecer una política de precios que recoja bonificaciones a los siguientes grupos de población vulnerable (máximo 1,5 puntos):

— Familias numerosas: (0,5 punto).

— Personas mayores de 65 años: (0,5 punto).

— Personas desempleadas: (0,5 punto).

— Perceptores de RGI: (0,5 punto).

— Personas con discapacidad: (0,5 punto).

* Se valorarán las actuaciones en equipamientos deportivos que estén ubicados en entornos desfavorecidos a nivel socioeconómico. Se valorará el índice de privación Medea del Instituto Vasco de Estadística 2011 de la zona geográfica en la que se encuentre el equipamiento deportivo. Se considerarán bajo nivel socio-económico los dos niveles inferiores de este índice. (máximo 1,5 puntos). Se valorará con 1,5 puntos si el equipamiento se ubica en una zona geográfica con índice 5 de Medea y 1 punto con índice 4 de Medea.

